

Gondra Barandiarán-Bilboko Arte Ederren Museoa
Bekak

2018-2019



FUNDACIÓN
GONDRA
BARANDIARÁN

110
URTE AÑOS

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

DEIALDIA ETA HELBURUA

Gondra Barandiarán Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioak (aurrerantzean, museoak) prestakuntzako zortzi bekatarako deialdia egiten dute, museoak hainbat arlotako prestakuntzarako, gazteei gaitasun berriak eskuratzeko eta prestakuntza-garaian hartutako ezagutzak garatzeko aukera emateko, museoak profesionalen laguntzarekin eta lan-ingurunearekin harremanetan egonda.

Programa egiteko, ezinbestekoa izan da Gondra Barandiarán Fundazioaren babesak. Fundazioaren helburua, besteak beste, jarduera zientifikoak, teknikoak, artistikoak eta kulturalak bultzatzea, garatzea, babestea eta sustatzea da, prestakuntzarako laguntzak emanez eta pentsatzea bultzatuko duten jarduerak programatuz.

PROGRAMAREN BALDINTZAK

Iraupena

Programa 2018ko urriaren 1ean hasiko da, eta bederatzir hilabeteko iraupena izango du. Museoak erabaki ahal izango du emandako beka batzuek edo guztiak luzatzea, bekak dituzten pertsonekin bat etorrira. Bekaren iraupen osoak ez du hamar hilabeteko aldia gaindituko.

Ordutegia

Programa astelehenetik ostiralera bitartean garatuko da, 09:00etatik 14:00etara.

Oporrak

Ondorengo datak ezarri dira: 2018ko abenduaren 24tik 2019ko urtarrilaren 6ra eta 2019ko apirilaren 15etik 22ra arte. Horrez gain, 2018ko eta 2019ko lan-egutegiko jaiegunak hartuko dira, eta bekadunek norberaren aukerako bi egun izango dituzte, programak irauten duen bitartean nahi duten urtean hartzeko, aurrez museoari jakinarazi, eta haren baimena jaso ondoren.

Bestelako baimenak edo ez-etortzeak tutoreak baimendu beharko ditu, museoak Giza Baliabideen Sailari jakinarazi ondoren.

Oinarri juridikoa

Programan parte hartzeak ez du inolara ere lan-harremanik sortuko bekaren onuradunaren eta museoaren artean. Hortaz, harremana egituratzeko, bi aldeek akordio pribatu bat sinatuko dute.

Beken onuradunei Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko mekanismoak aplikatzeko zaizkie programak irauten duen bitartean, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuari jarraiki. Horretarako, museoak ezinbestean sartu beharko ditu Gizarte Segurantzaren beken titularrak, eta programari dagozkion kotizazioak egin beharko ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian.

Diru-kopurua

Diru-kopura 500 euro gordinekoa izango da hilean. Museoak hileroko kenduko ditu indarreko legeriak ezartzen dituen zenbatekoak.

Museoak istripu-aseguru bat kontratatuko du bekadunentzat, gerta litekeen gorabeherak estaltzeko, bai eta erantzukizun zibileko aseguru bat ere, gauzei edo pertsoneri eragin ahal dieten kalteak estaltzeko, programak irauten duen bitartean.

DEIALDIAREN HASIERA

Deialdia 2018ko apirilaren 27an hasi eta maiatzaren 20ean amaituko da. Egun horietatik kanpo jasotako eskabideak ez dira inolara ere onartuko.

BALDINTZA OROKORRAK

- Bekarekin hastean, kasu bakoitzean eskatzen den titulazioa bukatuta izatea.
- 1988ko urtarrilaren 1a baino beranduago jaioa izatea.

ESKABIDEAK BETETZEA

Museoaren webgunean ondorio horretarako prestatu den online inprimakiaren bidez beteko dira eskabideak (**hemen**).

Hautagaiek arlo batean baino ezin izango dute eman izena, eta museoak izango du ahalmena, interesduna informatu eta haren baimena izan ondoren, haren hautagaizta beste sail baterako baloratzeko, beharrezkotzat jotzen badu.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

- NAN edo balio bereko dokumentu baten kopia.
- *Curriculum vitae*.
- Espediente akademikoa.

Eskatutako dokumentazioa artxibo bakar batean bidaliko da, pdf formatuan. Museoak edozein unetan eskatu ahal izango ditu aurkeztu beharreko dokumentuen jatorrizko aleak, egoki iruditzen bazaio.

Kontsultak egiteko edo zalantzak argitzeko, jarri harremanetan honekin: Zerbitzu Orokorren eta Giza Baliabideen Zuzendariordetza (94 439 60 60)

HAUTATZEKO PROZESUA

Hautatzeko prozesuaren **aurretiazko fasean**, museoak behar bezala zainduko du oinarrietan ezarritako eskakizun orokorrak eta bereziak betetzen diren. Eskatutako dokumentazioa finkatutako epearen barruan aurkezten ez duen hautagaiari eskatu ahal izango zaio hiru egun baliiodunetan akats hori zuzendu dezan. Epe hori igarotakoan, automatikoki baztertua izango da.

Prozesuan jarraitu ahal izateko, nahitaezkoa izango da sartzeko eskakizun orokorrak eta bereziak betetzea. Horiek gaindituta, eskabideen balorazioak 50 puntu izango ditu gehienez, eta honako hauek izango dira faseak eta puntuazioak. Museoak irizpideak interpretatzeko ahalmena izango du, betiere, arlo edo sail bakoitzaren zehaztapenak kontuan izanda, eta irizpide orokorretan finkatutako mugak betetz:

Lehenengo fasea: 30 puntu

Prozesuaren lehen fasean, museoak hautagaiaren curriculumak, espediente akademikoa eta gaitasunak hartuko ditu aintzat.

Bigarren fasea: 20 puntu

Prozesuaren bigarren fasean, bakarkako elkarrizketa bat egingo zaie hautagaiei. Museoak gutxienez 3 eta gehienez 5 pertsonari egingo die elkarrizketa beka bakoitzeko, eta, nolana ere, lehen fasean puntu gehien eskuratu dituztenak izango dira pertsona horiek. Bigarren faseko hautatuak izan direnei zuzenean jakinaraziko zaie. Era berean, izenak zerrenda batean jasoko dira, bakarkako elkarrizketa egiteko egunarekin eta orduarekin batera. Zerrenda museoaren webgunean emango da argitaratuta (**hemen**).

HAUTAGAIK AUKERATZEA

Hautaketa fasea amaitu ondoren, museoak titularren eta ordezkioen zerrenda prestatuko du, programaren iraupen-aldian hasieratik edo bat-batean izandako ukoak betetzeko, eta museoaren webgunean emango du argitaratuta (**hemen**), 2018ko ekainaren 25etik aurrera.

Museoak ebazpena hautatuak izan diren pertsoneri jakinaraziko die, eta, era berean, beken esleipena bete gabe utzi, edo erabat edo era partzialan bete dela jo ahal izango du.

BATERAEZINTASUNAK

Beka hauek prestakuntza izaera hutsekoak dira, eta bateragarriak dira ordaindutako bestelako lanekin, eta beste erakunde batek emandako bekekin, bidaia-poltsekin edo laguntza ekonomikoekin, betiere, bekak finkatutako ordutegian eraginik ez badu.

Bekaren behin bakarrik jaso ahal izango da.

Ezin izango dira beka honetara aurkeztu, beka hau edo museoan aurretik izandako prestakuntzarako beste bekaren bat jaso duten pertsonak.

BEKADUNAREN BETEBEHARRAK

Hautatutako pertsonak idatziz onartu beharko dute beka, eta, horretarako, e-posta bidezko mezua bidali beharko dute adierazten zaien helbidera, bost egun naturaleko epean, museoak beka eman diela jakinarazten dietetik hasita. Beka ezarritako epearen barruan onartu ezean, uko egiten diotela joko da, eta ordezkoen zerrendan agertzen den lehenengo pertsonari emango zaio.

Beka onartuz gero, akordio pribatua sinatu beharko da museoarekin, zeinaren bitartez honako betebeharrak hauek ere onartzen baitira:

- Konfidentzialtasunari buruzko konpromisoa sinatu beharko dute museoarekin.
- Baimena emango diete Gondra Barandiarán Fundazioari eta museoari, haien izena haien webguneetan eta memorietan ager dadin.
- Bekadunek hitz emango dute programan zehaztutako zereginak eta tutoreari egoki iruditzen zaizkion jarduerak beteko dituztela.
- Berariaz bete beharko dituzte laneko higie eta segurtasuneko arauak, berehala bete beharrekoak baitira, haien osotasun fisikoan eta museoan zerbitzua eskaintzen duten pertsonen osotasunean eragina dutelako.
- Oinarrietan finkatutako ordutegia bete beharko dute.

PROGRAMAREN GARAPENA

Bekarako onartutako pertsonak dagokion sail edo arloko arduradunaren gainbegiradapean jardungo dute; horrek bekadunen tutoretza eta jarraipena egingo du, eta programa bukatu ondoren azken txostena prestatuko du.

Era berean, bekadunek azken memoria prestatu beharko dute.

Bi dokumentu horiei esker, museoak ziurtagiria egin ahal izango du bekadunei, programako helburuak bete dituztela egiaztatzeko.

BEKA ETETEA ETA BALIOGABETZEA

Bekadunak bere betebeharrak betetzen ez baditu, museoak eskumena izango du bekaren gozamina amaitutzat emateko, eta, hori gorabehera, egokiak izan daitezkeen bestelako ekintzak egin ahal izango ditu.

Bekadunak uko egin ahal izango dio bekari, indarrean dagoen bitartean, baina aurrez museoari jakinarazi beharko dio, gutxienez 15 egun lehenago. Uko eginez gero, eten egingo dira bekaren diru-kopurutik ordaindu gabe dauden hileko ordainketak. Bestetik, programaren iraunaldiko %50 gainditu ondoren uko eginez gero, museoak ez du plaza bete beharrik izango.

ONARRIAK ALDATZEA

Museoak oinarri hauek aldatzea erabaki ahal izango du, eta, ondorio horretarako, nahikoa izango da bere webgunean argitaratzea (**hemen**).

DEIALDIAN ATERATAKO PLAZAK**ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK**

Arlo honen xedea da museoaren baliabide ekonomikoak kontrolatzea, finantza-egonkortasuna eta aurrekontuen oreka lortzeko, sarrerak kontrolatuz eta dena behar bezala ibil dadin behar diren gastuak optimizatuz. Kontabilitate-, zerga- eta lege-betebeharrak finkatutako epeetan beteko direla bermatzeaz arduratzen da, eta, gainera, prozedurak abiarazten ditu aurrekontuko prozesuetan eta kontabilitatean eta funtsen administrazioan finantza-administrazioa kudeatzeko.

Xedea

- Kontabilitate-eragiketen erregistroarekin elkarlanean aritzea.
- Diruzaintza, bezeroak eta hornitzaileak, eta aktibo ibilgetuak kudeatzen laguntzea.
- Aurrekontua kontrolatzen eta zergak likidatzen laguntzea.

Ezinbesteko baldintzak

- Lizentzia, gradua edo diplomatura Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan, Ekonomia Zientzietan edo antzeko titulazioen batean.

Baloratuko da

- Euskara eta ingeles maila egiaztatzea.
- Ofimatikako ezagutzak izatea, erabiltzaile independente mailakoak, Exceleko ezaguerei garrantzi berezia emanda

ARTXIBOA

Arlo honen xedea da museoak sortutako administrazio- eta dokumentazio-funtsak eta, era berean, funts historikoa (aktak, posta-trukea, argazkiak, memoriak, erakusketak...) eta funts pribatuak biltzea, gordetzea, sailkatzea eta ezagutzera ematea.

Xedea

- Dokumentuak katalogatzea.
- Datu-baseak eta online baliabideak eguneratzea.

Ezinbesteko baldintzak

- Lizentzia edo gradua Humanitateetan, Dokumentazioan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- Euskara, ingeles eta frantses maila egiaztatzea.
- Funts dokumentalak sailkatzeko eta artxiboko prozedurako ezagutzak izatea.
- Datu-baseak kudeatzeko, digitalizatzeko eta dokumentuak eskaneatzeko ezagutzak izatea.

LIBURUTEGIA

Arlo honen xedea da Artearen Historiako funts bibliografiko eta dokumental espezializatua eta museoko bildumak eta jarduerak kudeatzea eta ezagutzera ematea. Arlo honek, halaber, ARTEDER Euskal Artearen Datu Basea elikatzen eta zuzentzen du: museoak euskal artea ikertzeko eta zabaltzeko duen helburu orokorrari lotuta dagoen berezko proiektu dokumentala.

Xedea

- ARTEDER Euskal Artearen Datu Baseko proiektu dokumentala lantzeko laguntza ematea.
- Hainbat funts dokumental kudeatzea eta sailkatzea.
- Liburutegiko zereginetan eta zerbitzuetan laguntza ematea.

Ezinbesteko baldintzak

- Lizentzia Bibliotekonomian eta Dokumentazioan, edo gradua Informazioan eta Dokumentazioan, Artearen Historian, edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- Euskara eta ingeles maila egiaztatzea.
- Dokumentuak euskarri desberdinetan katalogatzeko ezagutzak izatea.
- Informazioa kudeatzeko sistemei buruzko ezagutzak izatea, bereziki liburutegiak kudeatzeko AbsysNET sistema informatikoaz.

BILDUMAK

Honen xedea da museoaren funts artistikoa kudeatzea, eta laguntza ematea bilduma ezagutarazteko eta zabaltzeko. Horrez gain, artxibo dokumental eta fotografikoaz, bildumako artelanen erregistroaz eta inbentarioaz, mugimenduen kontrolaz eta museoko aldi baterako erakusketetarako maileguen kudeaketaz arduratzen da.

Xedea

- Dokumentazioa, ikerketa eta datu-basea eguneratzea.
- Dokumentazio grafikoa.
- Aldi baterako erakusketak egiteko maileguak kudeatzeko laguntza ematea.

Ezinbesteko baldintzak

- Lizentzia edo gradua Artearen Historian, Dokumentazioan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- Euskara eta ingeles maila egiaztatzea.
- Fotografiako eta irudien tratamendu digitaleko ezagutzak izatea, bereziki Photoshopekoak.
- Datu-baseak kudeatzen jakitea.

HEZKUNTZA

Jarduera eta programa didaktikoak abiarazten ditu, gehienbat museoko bilduma iraunkorraren eta aldizkako erakusketen ezagutza sustatzeko, eta ahalik eta ikusle-mota gehien erakartzeko.

Xedea

- Hezkuntza-proiektuak garatzeko laguntza ematea.
- Aldizkako erakusketetako jarduerak egiten laguntzea.
- Hezkuntzako materialaren katalogazioa eta dokumentazioa.
- Jardueren memoria, inkestak hustea, jardueren betearazpena eta jarraipena, eta azken ebaluazioa egiteko sostengua ematea.
- Kontsultez eta eskaerez arduratzea.

Ezinbesteko baldintzak

- Lizentzia edo gradua Artearen Historian, Arte Ederretan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- Euskara, ingeles eta frantses maila egiaztatzea.
- Graduondokoa edo masterra izatea hezkuntza eta/edo komunikazioaren ezagutzan.
- Irudiak eta datu-baseak aurkezteko eta haien tratamendu digitalaz arduratzeko tresna informatikoei buruzko ezagutzak izatea.

ERAKUSKETAK

Museoko aldizkako erakusketen programaz arduratzen da: definitzea, lankidetzaz hitzarmenak prestatzea, maileguak, aseguruak eta garraioak koordinatzea, komisarioak koordinatzea, kudeaketa dokumentala, kudeaketa ekonomikoa eta muntatze-lanen koordinazio teknikoak.

Xedea

- Erakusketako proiektuak dokumentatzen, abian jartzen eta maileguak osorik kudeatzen laguntzea.
- Aldizkako erakusketen erregistroa egiten laguntzea.
- Aretoko muntatze-lanean laguntzea.

Ezinbesteko baldintzak

- Lizentzia edo gradua Artearen Historian, Arte Ederretan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- Euskara eta ingeles maila egiaztatzea.
- Graduondokoa edo masterra izatea Museologian edo antzeko titulazio batean.
- 2D eta 3D diseinuko tresna informatikoko eta irudien tratamendu digitaleko ezagutzak izatea.

ARGITALPENAK

Museoaren argitalpen guztien kudeaketaz arduratzen da, gehienbat aldizkako erakusketen katalogoaz, gidaliburuaz edo izaera zientifikoa duten beste idatzi batzuek. Gainera, beste sail batzuentzako euskarri editoriala eta grafikoa eskaintzen du, hainbat material ekoizten lagunduz: kartelak, errotulazioak, bisitarien gidak, gonbidapenak, marketineko elementuak, hezkuntza-koadernoak, etab.

Xedea

- Sailari argitalpenak sortzeko lanetan laguntza ematea: material fotografikoa eskatzea, testuen zuzenketa, hornitegien koordinazioa, etab.

Ezinbesteko baldintzak

- Lizentzia edo gradua Humanitateetan, Filologian edo Artearen Historian.

Baloratuko da

- Euskara eta ingeles maila egiaztatzea.
- Graduondokoa edo masterra izatea edizioan edo antzeko titulazio batean eta/edo testuen zuzenketa prozesuen ezagutza.
- Maketazioko tresna informatikoak (InDesign) eta argazki-moldaketa programak (Photoshop) ezagutzea.

ZERBITZU OROKORRAK

Museoaren zerbitzu orokorren kudeaketaz arduratzen da arlo hau, besteak beste, barne zerbitzuez, erakusketen muntatze- eta desmuntatze-lanez, artelanen manipulazioaz eta mugimenduez, eraikinaren eta azpiegituren mantentze-lan prebentibo zein zuzentzaileez, argiteria eta sistemez eta segurtasunaz.

Xedea

- Erakusketa-guneen eta azpiegituren diseinuan laguntzea, Bilduma eta/edo Erakusketa sailekin batera.
- Aretoen muntatze- eta desmuntatze-lanetan laguntzea.
- Planoak egiten eta berrikusten laguntzea.

Ezinbesteko baldintzak

- Lizentzia edo gradua Arkitekturan, Arkitekturaren oinarrietan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- Euskara eta ingeles maila egiaztatzea.
- Ezagutzak edo graduondokoa edo masterreko ikasketak izatea erakusketen diseinuan eta muntatzean, museografian eta/edo ondare kulturalaren kudeaketan edo antzeko titulazioetan.
- Eraikinen eta espazioen planoen irudi digitalak editatzeko edo/eta 3D-ko irudiak birsortzeko *softwarea* ongi ezagutzea.